

Administrazio Xedapenak

Foru Aginduak

TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA
LURRALDE OREKAREN SAILA

5816

376/2009 FORU AGINDUA, uztailaren 17koa. Honen bidez behin betiko onartzen da Laguardiako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketari buruzko espediente, 70 zenbakiko egikaritze unitateari (Biasteri ostatua) dagokiona.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2009ko urtarrilaren 13an, Laguardiako Udalak erabaki zuen planeamenduko arau subsidiarioen "Biasteri ostatua" 70 zenbakiko egikaritze-unitateari buruzko aldaketari hasierako onarpena ematea; baita espediente hori hilabetez jendaurrean jartzea ere, eta horren berri eman zen iragarki bana argitaratuta 2009ko urtarrilaren 26ko ALHAOn (11 zk.), 2009ko urtarrilaren 22ko El Correo egunkarian eta Udaleko iragarki taulan eta Paganoseko Administrazio Batzarrari jakinarazpena eginda.

Bigarrena.- Espediente jendaurrean egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, 2009ko martxoaren 11ko bilkuran, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak aldeko iritzia agertu zuen ekainaren 9ko 4/2009 bilkuran.

Laugarrena.- Laguardiako Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espediente (sarrera eguna: 2009ko ekainaren 19a), hala bazez gokia, behin betiko onar zezan.

Bosgarrena.- Era berean, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak uztailaren 15eko 5/2009 bilkuran aztertu zuen espediente hau.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Laguardiako arau subsidiarioek 70 egikaritze unitatearen (Biasteri ostatua) eremuko antolamendu xehekatuan antzinako Casablanca sektore industrialia eta berorren Casablanca 2 izeneko zabalgunea lotzeko bidea aurreikusten dute

Bide horrek gehiegizko malda du bertotik normal ibili ahal izateko; beraz, aipatutako industria sektoreen sustatzaileak, hots, Araba Garapen Agentziak, bidezko ikusi du berorren trazadura aldatzea, malda hori leuntzeko xedearekin luzera handiago emanda. Hori egiteak eremuaren antolamendu xehekatua aldatzea dakar, hau da, alboko industriadako lurzoru murriztea eta alboko zerbitzu erabileraren azpizona handitzea.

Bigarrena.- Agiriak hirigintza araudiak eskatutako betekizunak, formalak zein materialak, betetzen ditu.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuta, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Behin betiko onartzea Laguardiako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketari buruzko espediente, 70 zenbakiko egikaritze unitateari (Biasteri ostatua) buruzkoa, Araba Garapen Agentziak sustatu eta Laguardiako Udalak izapidetua.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, norbanakoek ondoren zehaztuko diren errekursoak aurkeztu

Disposiciones Administrativas

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

5816

ORDEN FORAL 376/2009, de 17 de julio, de aprobación definitiva del expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Laguardia, referente a la Unidad de Ejecución nº 70 "Hostal Biasteri".

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 13 de enero de 2009, el Ayuntamiento de Laguardia acordó aprobar inicialmente la modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referente a la Unidad de Ejecución nº 70 "Hostal Biasteri", así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 11, de 26 de enero de 2009, en el periódico El Correo de 22 de enero de 2009, comunicación a la Junta Administrativa de Paganos y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no hubo alegaciones, procediendo el Ayuntamiento, en sesión del día 11 de marzo de 2009 a aprobar provisionalmente el expediente.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 4/2009, de fecha 9 de junio.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Laguardia remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 19 de junio de 2009.

Quinto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 5/2009, de 15 de julio.

FUNDAMENTOS

Primero.- Las Normas Subsidiarias de Laguardia prevén en la ordenación pormenorizada del ámbito de la unidad de ejecución 70, "Hostal Biasteri", un vial de conexión entre el antiguo sector industrial de Casablanca y su ampliación denominada Casablanca 2.

Tal vial tiene una pendiente excesiva para su normal funcionamiento, por lo que la promotora de los sectores industriales mencionados, Alava Agencia de Desarrollo, ha estimado pertinente modificar su trazado, a fin de suavizarla dándole una mayor longitud. Esto supone la modificación de la ordenación pormenorizada del ámbito que conlleva la reducción del suelo industrial y la ampliación de la subzona de uso terciario, adyacentes.

Segundo.- El documento cumple los requisitos de contenido formal y material establecidos en la legislación urbanística.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Laguardia, referente a la Unidad de Ejecución nº 70 "Hostal Biasteri", promovido por Alava Agencia de Desarrollo y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los

ahal izango dituzte beraren aurka, eta euren interesen alde egiteko bidezko deritzeten neurriak ere abiarazi ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dakiok (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Horretarako, berriz, hilabete izango da, honako hau argitaratu edo honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 17a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saileko Foru Diputatuak, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

70. AREAREN HIRIGINTZA-FITXA: BIASTERI OSTATUA

A) MUGAPENA ETA GAUR EGUNGO EGOERA

Area hori Biasteri ostatuaren instalazio multzoari dagokio, eta Casablanca poligonoaren mutur mugakidea gehitu zaio. Zehazki, berdegunea eta ia hutsik dagoen industria lurzattia, biak poligonoaren indarreko plan partzialean aurrekusiak.

B) HIRIGINTZA ANTOLAMENDURAKO PROPOSAMENA

Hirigintza helburua bikoitza da.

Alde batetik, Biasteri ostatuaren lurzattia Casablancako industrialdeak eta etorkizuneko Malpicako sektoreak osatutako etorkizuneko industrigunearen erdialdean kokatuko den hirugarren sektoreko ekipamendugune gisa sendotu eta bultzatu nahi da.

Bestalde, Casablanca poligonoaren eta Malpica sektorearen artean lotura zuzena izateko zerbitzu bide bat eratzea proiektatzen da. Bide horrek A-124 errepide orokorrarekin bi lotura besterik ez ditu izango, iparraldeko eta hegoaldeko muturretan. Aipatutako zerbitzu bide horrek 70. area zeharkatzen du, eta Biasteri ostatura sartzeko adar bat aurrekusi da. Bide proposamen hori Arabako Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailak ezarritako irizpideei jarraiki proposatzen da.

C) HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA ERREGULAZIORAKO PROZESUA

Eraikuntza berriko eremua, Araudi Orokorraren 19. artikuluari jarraituz, alde zuzeneko planeamenduaren beharrik gabe oin berriko eraikuntza ahalbidetzen duen hiri areari dagokiona.

Lurzatti bakoitzaren garapen zuzena, eraikuntza proiektu bidez, eta urbanizazioaren garapena, dagokion proiektuaren bidez.

Aurreikusitako antolamenduan aldaketarik sartuko balitz, udalak xehetasunezko azterlana eska lezake.

D) HIRIGINTZAKO ARAUTEGIA

Azalera: 38.000 m²

Saillkapena: Hiri lurzorua.

Kalifikazioa eta erabilera orokorra: Hirugarren sektorea eta industria

Eraikuntza aprobetxamendua:

Industria erabilerako lurzattia:

.Eraikuntza okupazioa, gehienez: 3.456 m².

.Eraikigarritasuna, gehienez: 4.147 m² s.e.

Hirugarren sektoreko erabilerako lurzattia (industria erabilerarekin bateragarria):

.Hirugarren sektoreko erabilerarako eraikuntza okupazioa, gehienez: 6.000 m².

.Hirugarren sektoreko erabilerarako eraikigarritasuna, gehienez 12.000 m² s.e.

.Industria erabilerarako eraikuntza okupazioa, gehienez: 2.244 m².

.Industria erabilerarako eraikigarritasuna, gehienez: 2.853 m² s.e.

siguintes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 17 de julio de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

FICHA URBANÍSTICA DEL ÁREA Nº 70: HOSTAL BIASTERI

A) DELIMITACIÓN Y SITUACIÓN ACTUAL

El área corresponde al conjunto de las instalaciones del Hostal Biasteri, al que se añade el extremo colindante del polígono Casablanca. Concretamente, la zona verde y una parcela industrial, que se encuentra casi vacía, previstas en el Plan Parcial vigente del Polígono.

B) PROPUESTA DE ORDENACIÓN URBANÍSTICA

El objetivo urbanístico es doble.

Por un lado se trata de consolidar y potenciar la parcela del Hostal Biasteri como núcleo de equipamiento terciario enclavado en el centro del futuro polo de desarrollo industrial constituido por el polígono de Casablanca y el futuro sector de Malpica.

Por otro lado se proyecta la configuración de un vial de servicio de conexión directa entre el polígono de Casablanca y el sector de Malpica con tan sólo dos enlaces, en los extremos Norte y Sur, con la carretera general A-124. Dicho vial de servicio recorre el Área 70 y se prevé un ramal de acceso al Hostal Biasteri. Esta propuesta viaria se plantea siguiendo los criterios establecidos por el Departamento de Obras Públicas de la Diputación Foral de Álava.

C) PROCESO DE GESTIÓN Y REGULACIÓN URBANÍSTICA

Ámbito de nueva edificación, conforme al artículo 19 de la Normativa General, que corresponde a área urbana en la que se posibilita la edificación de nueva planta, sin necesidad de planeamiento previo.

Desarrollo directo de cada parcela mediante Proyecto de Edificación y desarrollo de la Urbanización mediante el correspondiente proyecto.

En caso de introducirse modificaciones con respecto a la ordenación prevista el ayuntamiento podrá exigir un Estudio de Detalle.

D) NORMATIVA URBANÍSTICA

Superficie: 38.000 m²

Clasificación: Suelo Urbano

Calificación y uso global: Terciario e Industrial

Aprovechamiento edificatorio:

Parcela de uso industrial:

.Ocupación edificatoria máxima: 3.456 m².

.Edificabilidad máxima: 4.147 m².t.e.

Parcela de uso terciario (compatible con industrial):

.Ocupación edificatoria máxima uso terciario: 6.000 m².

.Edificabilidad máxima uso terciario 12.000 m².t.e.

.Ocupación edificatoria máxima uso industrial: 2.244 m².

.Edificabilidad máxima uso industrial: 2.853 m².t.e.

Lurraren erabilera xehekatua:

- Industria erabilerako lurzatia: 3.456 m².
- Hirugarren sektoreko erabilerako lurzattia (industria erabilerarekin bateragarria): 24.238 m².
- Berdegunea: 4.483 m².
- Bideak: 5.823 m².

Zonifikazio xehekatuaren I.4.3 planoaren antolamendu xehekatuaren arabera.

Hirugarren sektoreko eta industriako lurzoruan baimen daitezkeen hirigintza erabilerak Araudiaren 25. artikuluan hirugarren sektoreko eta ekoizpeneko erabilerarako eta industria erabilerarako jasotzen direnak izango dira.

Eraikinen antolamendua:

Eraikuntza antolamendua fitxa honetan eta arauen planoetan ezartzen dira. Lurzati hauetako eraikuntza parametroak honakoak dira:

- Industria erabilerako lurzattia:
 - Azalera, gutxienez: 350 m².
 - Nahitaezko atzeragunea: Lerrokadura lurzatiaren mugan
 - Altuera, gehienez: 10 m.
 - Solairu kopurua, gehienez: BS+2
 - Beheko solairuko altuera librea, gutxienez: 4 m.
 - Beste solairu batzuetako altuera librea, gutxienez: 2,50 m.
- Hirugarren sektoreko erabilerako lurzattia (industria erabilerarekin bateragarria):
 - Azalera, gutxienez: egun dagoena
 - Nahitaezko atzeragunea: fitxa honetan ezarritakoa
 - Altuera, gehienez: 12 m.
 - Solairu kopurua, gehienez: BS+2
 - Gutxieneko altuera librea industria erabileran: 4 m.
 - Gutxieneko altuera librea bestelako erabilera batean: 2,50 m.

Sarbideak eta aparkalekuak:

lurzatiarako sarbideak II.4.3 eta II.5.3 planoetan zehaztutako zerbitzu bideetatik egingo dira, eta epe ertainera saihestu egingo da A-124 errepideko zuzeneko sarbidea.

Hirugarren sektoreko lurzatiaren gutxieneko hornidura plaza 2koa izan beharko da sabai eraikigarrien 100 m² bakoitzeko, eta, industria erabileran, 1ekoa izan beharko da sabai eraikigarrien 100 m² bakoitzeko.

Industria erabilerako lurzatiaren ez da aurreikusten aparkalekuz hornitzea, lurzatiaren okupazioa ehuneko ehun baita.

(Oharra: s.e. = sabai eraikigarria)

Usos pormenorizados del suelo:

- Parcela uso industrial: 3.456 m².
- Parcela uso terciario y compatible con uso industrial: 24.238 m².
- Zona verde: 4.483 m².
- Viario: 5.823 m².

Según ordenación detallada de plano II.4.3, de zonificación pormenorizada.

Los usos urbanísticos autorizables en el suelo terciario e industrial serán los contemplados en el artículo 25 de la Normativa para el uso denominado terciario productivo e industrial.

Ordenación edificatoria:

La ordenación edificatoria es la establecida en la presente ficha y en los planos de las Normas. Los parámetros de edificación en estas parcelas son los siguientes:

- Parcela de uso industrial:
 - superficie mínima: 350 m².
 - retranqueo obligatorio: alineación a límite de parcela
 - altura máxima: 10 m.
 - número máximo de plantas: P.B.+2
 - altura libre mínima en planta baja: 4 m.
 - altura libre mínima en otras plantas: 2,50 m.
- Parcela de uso terciario y compatible con uso industrial:
 - superficie mínima: la existente.
 - retranqueo obligatorio: el establecido en la presente ficha
 - altura máxima: 12 m.
 - número máximo de plantas: P.B.+2
 - altura libre mínima uso industrial: 4 m.
 - altura libre mínima otro uso: 2,50 m.

Accesos y aparcamiento:

Los accesos a las parcelas se disponen desde los viales de servicio definidos en los planos II.4.3 y II.5.3, evitando, a medio plazo, el acceso directo desde la A-124.

En la parcela de uso terciario se debe disponer una dotación mínima de 2 plazas por cada 100 m².t.e. de uso terciario y 1 plaza por cada 100 m².t.e. de uso industrial.

En la parcela de uso industrial no se prevé dotación de aparcamiento ya que es una parcela de ocupación 100 por ciento.

(Nota: t.e. = techo edificable)

Iragarkiak

HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

5806

Behin betiko onartzea "A-3314 errepidearen trazadura, 19,300 kilometrotik (A-2622 errepidearekiko gurutzagunea) 32,300 kilometroraino (Andagoia), hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikuntza proiektua" k eragindako ondasunak eta eskubideak.

Diputatuen Kontseiluak abuztuaren 3an egindako bilkuran 537/2009 Erabakia onartu zuen. Hona hemen hori hitzez hitz:

"Jendaurreko informazio aldiaren aurkeztutako alegazioen erantzuna, proiektu hau dela eta: 19,300 kilometrotik (A2622 errepidearekin bat egiten duen lekuan) 32,300 kilometroraino (Andagoia) A-3314 errepidearen trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikitze proiektua". Behin betiko onartzea proiektu hori, baita horrek eragindako ondasun eta eskubideak ere. Horien presako okupazioa deklatzeko eskatzea Eusko Jaurlaritzari.

Uztailaren 8ko eta 22ko Diputatuen Kontseiluaren 473/2008 eta 519/2008 erabakien bidez, hurrenez hurren, hasierako onarpena ematea erabaki zen "19,300 kilometrotik (A2622 errepidearekin bat

Anuncios

DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

5806

Aprobación definitiva de bienes y derechos afectados por el "Proyecto de construcción de mejora de trazado y ampliación de plataforma de la carretera A-3314, p.k. 19,300 (intersección con la A-2622) a p.k. 32,300 (Andagoia)".

El Consejo de Diputados, en sesión celebrada el día 3 de agosto de 2009, ha aprobado el Acuerdo número 537, cuya dispositiva es la siguiente:

"Contestación de las alegaciones presentadas en el periodo de información pública al "Proyecto de construcción de mejora de trazado y ampliación de plataforma de la carretera A-3314, p.k. 19,300 (intersección con la A 2622) a p.k. 32,300 (Andagoia)". Aprobación definitiva de dicho proyecto así como de la relación definitiva de los bienes y derechos afectados por el mismo. Solicitud al Gobierno Vasco de la declaración de su urgente ocupación.

Mediante Acuerdos 473 y 519, del Consejo de Diputados, de 8 y 22 de julio de 2008, respectivamente, se dispuso aprobar inicialmente el "Proyecto de construcción de mejora de trazado y ampliación de